



A23 Class terminala

Erabiltzailearen eskuliburua
A23 Class erabiltzeko gida

Aurkibidea

Oharrak	<u>4</u>
Birziklatzea	<u>4</u>
1. Instalazioa eta konfigurazioa	<u>5</u>
o Kaxaren edukia	
o Telefonoaren deskribapena	
o Instalazioa	
o Konfigurazioa	
o Hizkuntza hautatzea	
o Data eta ordua	
o Txirrinaren bolumenaren kontrola	
o Doinua hautatzea	
o Kontrastea doitzea	
o Txirrinaren bolumenaren kontrola	
o Kontagailua	
o "R" tekla.	
o Erabiltzaile-izena	
o Pantailako informazioa	
2. Funtzionamendua	<u>11</u>
o Sarrerako deiak	
o Deia nola egin	
o Esku libreko funtzioarekin deitzea	
o Esku libreko funtzioarekin deia jasotzea	
o Markatutako azken 10 zenbakiak berrikustea	

Aurkibidea

3. Agenda nola antolatu 13

- o Agendan datuak sartzea
- o Agendako datuak aldatzea
- o Agendatik markatzea
- o Agendako informazioa ezabatzea
- o Memoria betea

4. Jasotako deien kontrola 15

- o Jasotako deiak berrikustea
- o Jasotako deien zerrendatik markatzea
- o Jasotako deien zerrendako edo agendako informazioa ezabatzea
- o Agendako sarrerako deiak aldatu eta biltegitratzea

5. Zerbitzu bereziak 16

- o Deiak desbideratzea
- o Deia zain
- o Hiruko deia
- o Ahots-postontzia
- o Ahots-postontzirako lasterbidea
- o Euskaltelen bezeroentzako zerbitzua

6. Zer egin zalantza duzunean 18

- o Sarrien gertatzen diren arazoak

7. Zehaztapen teknikoak 18

Oharrak

- Irakurri jarraibide hauek telefonoa erabiltzen hasi aurretik.
- Ez busti telefonoa eta ez utzi toki hezeetan.
- Ahal baduzu, ez instalatu telefonoa leku oso hotzetan edo beroetan, ezta telebisten, irratien eta beste tresna elektriko batzuen ondoan ere.
- Ez utzi eguzki-argiak telefonoari zuzenean eman diezaion.
- Erabili zapi heze bat telefonoa garbitzeko.
- Ez erabili sekula aerosol moduko garbitzeko produkturik, aparatuaren zulotxoetatik sartu eta kalte egin baitiezaioke.

Birziklatzea

- Ez bota telefonoa etxeko zaborrarekin batera.

Eskatu informazioa zure herriko udalari, ingurumena ez kaltetzeko telefonoarekin zer egin dezakezun esan diezazuten. Kartoizko kaxa, bilgarriaren plastikoa eta telefonoaren piezak birzikla daitezke, birziklatzeari buruz Espainian indarrean dauden arauen arabera.

- Bete itzazu beti birziklatzeari buruz indarrean dauden arauak. Legeak ezarritako zigorrak eta neurriak bete behar dituzte arauak urratzen dituztenek.



Aparatuak duen edukiontzi ezabatuaren ikurrak esan nahi du ekipoa bilgune berezi batera eraman behar dela bizitza erabilgarriaren amaierara iritsitakoan, eta ez dela tratatu behar hiri-hondakinekin nahasita.

1. Instalazioa eta konfigurazioa


Kaxaren edukia.

Telefono-kaxaren barruan, elementu hauek egon behar dute:

- Telefonoaren oinarri-unitatea.
- Mikrotelefono kableduna.
- Linearen kablea.
- Erabiltzailearen eskuliburua, ale hau eta bermearen baldintzak.

Telefonoaren deskribapena.

Irudiak telefonoaren osaera erakusten du, eta lagungarria da terminala instalatzeko eta erabiltzeko.



1. Euskaltelen Bezeroarentzako Arretaren tekla.
2. Deia desbideratzeko tekla.
3. Deia zain uzteko zerbitzuaren tekla.
4. Hiruko deiaren tekla.
5. Beste zerbitzu batzuetara joateko "R" tekla.
6. Ezabatzeko tekla
7. Menura sartzeko tekla.
8. Ahots-postontziaren kontsulta-tekla.
9. Esku libreko gailuaren bolumena doitzeko.
10. Jasotako deien zerrendara joateko.
11. Markatutako azken zenbakiaren menuko eta errepikatzeko aukerak berresteko.
12. Agendara sartzeko.
13. Hasierako pantailara itzultzeko edo irteteko.
14. Esku libreko funtzioa.
15. Teklatu alfanumerikoa.
16. Laukitxoaren tekla (#).
17. Izartxoaren tekla.
18. Telefonoa eseki gabe dagoela adierazten duen adierazlea.
19. Linearen kable zapalerako sarrera.
20. Mikrotelefonoaren kable kizkurrerako sarrera.
21. Hormarako euskarria.
22. Entzungailua.
23. Mikrofonoa.
24. Mikrotelefonoa.

Instalazioa

Telefono hau multimaiztasun-markaketa duten lineetara bakarrik konektatu behar da.

1. Mikrotelefonoaren lokarriaren konexioa: Konektatu mikrotelefonoaren kable kizkurraren muturra oinarriaren ezker aldean dagoen konektorearekin (20).
2. Telefono-linearako konexioa: Konektatu linearen kable lisoaren mutur bat telefonoaren atzeko aldean (19), eta bestea telefono-hartunean edo -entxufean. Egiaztatu entzungailua altxatzean tonua entzuten dela.

3. Horman jarri nahi baduzu, kokatu plastikozko pieza oinarriaren erdian dauden zuloetan, eta sartu bi gabila horman, 7 cm-ko tartearekin. Atera hormako pieza (21), biratu 180°, eta sartu berriro.

Konfigurazioa.

Terminala telefono-lineara konektatu ondoren, deiak egiteko eta jasotzeko prest egongo da. Hala ere, nahi baduzu, hauek ere konfigura ditzakezu: txirrinaren bolumena, doinua, kontrastea eta hizkuntza (gaztelania, euskara, katalana, galegoa eta ingelesa).

Hizkuntza hautatzea.

Aipaturiko hizkuntzetako bat hautatzeko, egin urrats hauek:

1. Mikrotelefonoa esekita dagoela, sakatu MENU tekla.
2. Sakatu tekla, HIZKUNTZA agertzen den arte.
3. Sakatu a, eta hautatu hizkuntza teklak sakatzuz.
4. Sakatu OK tekla erabilgarri dagoen aukera ber

Sakatu tekla pantaila hasierara itzultzeko.



Data eta ordua.

Telefono honek automatikoki eguneratzen ditu eguna eta ordua, dei-egilearen abonatu-zenbakiaren identifikazioa duen lehen deia jasotzean. Beraz, ez da beharrezkoa erabiltzaileak ezer egitea.

Eskuz egin nahi baduzu, jarraitu urrats hauek:

1. Mikrotelefonoa esekita dagoela, sakatu MENU tekla.
2. Sakatu tekla, ORDUA/DATA agertzen den arte.
3. Sakatu a. ORDUA keinuka hasiko da. Sartu data eta ordua zenbakizko teklatura erabiliz.
4. HILABETEA eta EGUNA keinuka hasiko dira. Sartu hilabetea eta, ondoren, eguna.
5. Sakatu OK tekla berresteko. Informazioa automatikoki grabatuko da.

Sakatu tekla pantaila hasierara itzultzeko.



Txirrinaren eta bolumenaren kontrola.

Deiaren txirrina hiru mailatan doitu daiteke (baxua, ertaina eta altua). Bolumena aldatzeko, egin hau:

1. Mikrotelefonoa esekita dagoela, sakatu MENU tekla.
2. Sakatu ▲ (P) tekla, BOLUMEN TXIRRINA agertzen den arte.
3. Sakatu OK tekla. Uneko maila agertuko da pantailan.
4. Sakatu ▲ (P) tekla, aldatzeko. Sakatu OK berresteko.

Sakatu (X) tekla pantaila hasierara itzultzeko.

Doinua hautatzea.

Telefono honek hiru doinu-mota hautatzeko aukera ematen du. Doinuz aldatzeko, egin hau:

1. Mikrotelefonoa esekita dagoela, sakatu MENU tekla.
2. Sakatu (P) tekla, DOINUA agertzen den arte.
3. Sakatu (▲) (P) tekla. Uneko doinua agertuko da pantailan.
4. Sakatu (▲) (P) tekla, aldatzeko. Sakatu OK berresteko.

Sakatu (X) tekla pantaila hasierara itzultzeko.



Kontrastea doitzea.

Terminalaren pantailaren kontrastea alda dezakezu. 5 maila dauzka. Egin adierazitako urratsak kontrastea aldatzeko:

1. Mikrotelefonoa esekita dagoela, sakatu MENU tekla.
2. Sakatu (P) tekla, KONTRASTEAGA agertzen den arte.
3. Sakatu OI (▲) (P) berresteko.
4. Sakatu (▲) (P) eta (▼) (P) teklak nahi duzun kontrastea hautatzeko. (1) kontraste txikia da eta (5) kontraste handi.
5. Sakatu OK tekla berresteko.

Sakatu (X) tekla pantaila hasierara itzultzeko.



Txirrinaren bolumenaren kontrola.

Esku libreko funtzioan, bolumenaren maila VOL teklaren bidez alda daiteke. Elkarrizketan zehar ere alda dezakezu bolumena tekla hori sakatuz.

4 bolumen-maila daude. Pantailak ere ikur batzuen bidez adierazten dizu bolumena baxu edo a' (■ ■) (■ ■ ■ ■ ■ ■ ■ ■)

Kontagailua.

Terminal honek kontagailu bat dauka, entzungailua altxatu eta 6 segundora automatikoki martxan jarriko dena. Horrela, deiak zenbat iraun duen nahiko zehatz jakin ahal izango duzu.

"R" tekla.

Tekla honen bidez, zure telefono-enpresak edo telefonoguneak eskaintzen dizkizun zerbitzu osagarriak erabil ditzakezu. Horretarako, "R" tekla sakatu behar duzu, eta dagokion kodea markatu.

Erabiltzaile-izena.

Testua sar dezakezu (adibidez, zure izena), mikrotelefonoa esekita dagoenean pantailan bistaratu dadin.


1. Telefonoa esekita dagoela, sakatu **9352663#". Pantailan " _ " agertuko da.
2. Sartu testua teklatuaren bidez. Gehienez ere 14 letra. Sakatu OK berresteko.






Pantailako informazioa.

Itxaroten dagoela, telefono-pantailak ordua eta data erakusten ditu lehen lerroan (hilabetea eta eguna).

Erantzun gabeko deiak jasotzen dituzunean, "XX berri" agertuko da pantailan.

Pantailan ager daitekeen informazio gehigarria eta haren esanahia erakusten ditu taula honek:

PANTAILA	DESKRIBAPENA
	<p>Ahots-mezuak.</p> <p>Ikur finko horrek esan nahi du zure telefonotik ahots-postontziaren zerbitzua aktibatu dela.</p> <p>Ikur hori argi gorriaren ondoan keinuka agertzen bada, horrek esan nahi du ahots-mezu bat duzula zure telefono-konpainiaren ahots-postontzian</p>

	<p>Bozgorailua.</p> <p>Ikur hori geziaren ondoan agertzen da telefonoa esku libreko funtzioan dagoenean. Hori tekla sakatzen gertatzen da.</p>
	<p>Errepikatutako deia.</p> <p>Ikur hori erantzun gabeko deien zerrenda berrikustean agertzen da. Erabiltzaile beraren hainbat dei jaso badira, telefonoak azken deia ordua bakarrik gordetzen du; ikono honek pertsona berak gehiagotan ere deitu duela adierazten du. Deia bistaratzean, ikurra desagertu egiten da.</p>
	<p>Dei berria. Keinuka hasten da erantzun gabeko deiak dituzunean.</p> <p>Ikur hori agertzen da erantzun gabeko deiak dituzunean.</p> <p>Ikur hori jasotako deien zerrenda berrikustean agertzen da. Telefonoak erantzun gabeko deiak zerrendan gordetzen ditu ezabatzen diren arte. Ikur honek dei berriak lehendik jasota eta oraindik ezabatu gabe dauden deietatik bereizten ditu. Deia bistaratutakoan, ikurra desagertu egiten da.</p>
	<p>Hautatutako melodia adierazten du.</p>
	<p>Txirrinaren bolumena adierazten du.</p>

2. Funtzionamendua

Sarrerako deiak.

Deia jasotzen duzunean, txirrinak jotzen du:



1. Hartu mikrotelefonoa. Hasi elkarrizketa. Amaitzen duzunean, jarri entzungailua dagokion tokian.



Deia nola egin.

Telefono-zerbitzuaren beste abonatu bati deitzeko, eragiketa hauek egin behar dituzu:



1. Altxatu mikrotelefonoa, eta itxaron linearen tonua entzun arte.
2. Markatu nahi duzun zenbakia, eta egiaztatu komunikazioa ondo ezartzen dela.
3. Amaitzen duzunean, jarri entzungailua dagokion tokian.

Esku libreko funtzioarekin deitzea.

1. Mikrotelefonoa altxatu gabe, sakatu "esku libreak" tekla (14), markatzeko tonua lortzeko. 
2. Markatu nahi duzun zenbakia.
3. Solaskideak erantzutean, elkarrizketa has dezakezu entzungailua hartu gabe.
4. Deia amaitzeko, sakatu berriro a.



Agendatik edo jasotako deien erregistrotik automatikoki markatzen baduzu eta entzungailua altxatu ez baduzu, telefonoak esku libreko moduan markatuko du. Modu normalean hasitako elkarrizketa bat esku libreko moduan jarraitu nahi baduzu, nahikoa duzu  tekla sakatzea eta, gero,  krofonoa bere lekuan uztea.


Esku libreko funtzioarekin deia jasotzea.

1. Deiari esku libreko moduan erantzuteko, nahikoa da  tekla sakatzea txirrinak jotzen duenean.
2. Deia amaitzeko, sakatu berriro a.

Markatutako azken 10 zenbakiei berriro deitzea.

Telefono honek egindako azken hamar deiak gordetzen ditu. Horiek berrikusteko edo berriro deitzeko:



1. Sakatu OK tekla telefonoa egonean dagoen bitartean.  
teklak erabiliz, markatutako azken 10 zenbakiak berrikus ditzakezu.
2. Deietako bat berriz egin nahi izanez gero, nahikoa duzu OK tekla sakatzea pantailan markatu beharreko zenbakia agertzen denean. Telefonoa automatikoki esku libreko modura igaroko da, linea hartuko du, eta hautatutako zenbakia markatuko du.

OHARRA : Markatutako azken 10 zenbakietako bat esku libreko funtzioa erabili gabe markatu nahi baduzu,  tekla sakatu beharrean, altxatu mikrotelefonoa eta, ondoren, jarraitu lehen aipaturiko urratsak.

3. Agenda nola antolatu.


Agendan datuak sartzea.

Agendan, 100 erregistro sar daitezke guztira. Erregistro bakoitza izen batek eta hari loturiko zenbakiak osatzen dute. Horiek sartzeko, egin urrats hauek:

1. Sakatu MENUA tekla, eta pantailan "GORDE" agertuko da: Sakatu OK berresteko.
2. Pantailan "IZENA:" agertuko da. Sartu gorde nahi duzun izena teklaturia erabiliz, eta sakatu OK tekla berresteko. Errorea ematen badu, sakatu  tekla sartutako  letra ezabatzeko. # tekla sakatuz, zuriunea sar dezakezu.

1	! • - > 1 ¡	7	P Q R S 7
2	A B C 2 "	8	T U V 8 ? Ü
3	D E F 3 \$	9	W X Y Z ¿
4	G H I 4 %	*	+ ;) (* €
5	J K L 5 &	0	_ 0 , ' / @
6	M N O 6 ñ	#	(espacio) : = < #

Adibidez: BEA izena sartzeko, sakatu 2 tekla bi aldiz jarraian, itxaron hurrengo kokalekua keinuka hasten den arte, eta sakatu bi aldiz jarraian 3 tekla. Itxaron hurrengo kokalekua keinuka hasi arte, eta sakatu 2 tekla behin.

3. Pantailan "T:" agertuko da. . Orain telefono-zenbakia sartu behar duzu. Sakatu OK berresteko.
Sakatu  tekla edozein unetan agendatik irteteko.

OHARRA : Zenbaki bat behar bezala sartzeko, aukera guztiak berretsi behar dira. Zenbaki berri bat sartu baduzu eta berretsi gabe irteten bazara, zenbakia ez da gordeko. Lehendik zegoen zenbakiren bat aldatzen baduzu eta berretsi gabe uzten baduzu, zenbakia ez da aldatuko.

Agendako datuak aldatzea.

1. Sakatu tekla, eta hautatu aldatu nahi duzun zenbakia.
2. Sakatu "F" . Sakatu izenaren karaktere batzuk ezabatzeko. Sakatu OK berresteko.
3. Aldatu orain zenbakia, nahi bai . Sakatu OK tekla berresteko.

Agendatik markatzea.

Agendan gordetako zenbaki bat markatzeko:

1. Sakatu tekla. Pantailan izen hauek agertuko dira, ordena alfabetikoan.
2. Sartu deitu nahi diozun pertsonaren izenaren lehen letra.
3. Hautat letrarekin hasten den lehen izena erakutsiko du telefonoak pantailan. eta teklen bidez, nahi duzun izena bila dezakezu. Pantailan agertutakoan, nahikoa da OK sakatzea edo mikrotelefonoa altxatzea ekipoak zenbakia automatikoki marka dezan.



Agendako informazioa ezabatzea.

Agendako erregistroren bat ezabatzeko:

1. Bilatu ezabatu nahi duzun datua agendan.
2. Sakatu ... tekla.
3. Pantailan hau bistaratuko da: . Sakatu OK berresteko.

Sakatu a pantaila hasierara itzultzeko. ?

Memoria betea.



Telefonoak memoriako 100 posizio dauzka. Horiek guztiak betetzen direnean, MEMORIA BETEA agertuko da pantailan. Berriak sartu nahi badituzu, sarrera horietako batzuk ezabatu beharko dituzu lehenik.

4. Jasotako deien kontrola

Deika nor ari zaizun edo zu ez zeunden bitartean nork deitu dizun jakin dezakezu.

Telefono honek zain dagoen deia identifikatzeko funtzioa ere badauka. Zerbitzu hau aktibatuta badaukazu, beste elkarrizketa batean ari zaren bitartean deika nor ari zaizun jakin ahal izango duzu. Deitu dizun pertsonaren zenbakia ere erregistratuta geratuko da jasotako deien zerrendan.

Jasotako deiak ikustea.

Pantailan ikurra keinuka agertzen denean, horrek esan nahi du ikusi gabeko dei berriak daukazula. tako deiak ezabatu arte gordetzen ditu telefonoak. Gehienez, 20 dei gorde ditzakezu. Jasotako deien zerrenda ikusteko:

1. Sakatu tekla. Pantailan jasotako azken deiaren zenbakia, ordua eta data agertuko dira. Zenbaki hori agendan sartuta badaukazu, izena ere agertuko da.
2. Sakatu tekla gordetako zenbakiak ordena kronologikoan ikusteko.

Sakatu tekla pantaila hasierara itzultzeko.



Jasotako deien zerrendatik markatzea.

Jasotako deien zerrendan gordetako zenbaki bat markatzeko:

1. Sakatu tekla nahi duzun zenbakia hautatu arte.
2. Pantailan tutakoan, nahikoa da OK sakatzea edo mikrotelefonoa altxatzea ekipoak zenbakia automatikoki marka dezan.

Agendako edo jasotako deien zerrendako informazioa ezabatzea.

1. Bilatu ezabatu nahi duzun datua deien zerrendan edo agendan.
2. Sakatu tekla.
3. Pantailan agertuko da. Sakatu OK berresteko.

Sakatu tekla pantaila hasierara itzultzeko.



Jasotako deiak aldatzea eta agendan gordetzea.

Jasotako deien zerrendako dei bat agendan gordetzeko:

1. Sakatu tekla aldatu edo gorde nahi duzun zenbakia hautatu arte.
2. Sakatu "R" tekla izena aldatu edo gehitu nahi baduzu. Izenaren ondoan, marratxo bat keinuka hasiko da. z, letrak ezaba ditzakezu. Idatzi izena. Sakatu OK tekla berresteko.
3. Zenbakiaren amaieran, marratxo bat keinuka hasiko da. Sakatu OK tekla berresteko.

OHARRA : Zenbaki bat behar bezala sartzeko, aukera guztiak berretsi behar dira. Zenbaki berri bat sartzen baduzu eta berretsi gabe irteten bazara, zenbakia ez da gordeko. Lehendik zegoen zenbakiren bat aldatzen baduzu eta berretsi gabe uzten baduzu, zenbakia ez da aldatuko.

5. Zerbitzu bereziak

Telefonora deitzen dizutenean dei hori zuk hautatutako beste zenbaki batera automatikoki pasatzea aukeratu dezakezu (zerbitzu hau telefono-konpainiarekin kontratatu behar duzu).

Deiak desbideratzea aktibatzeko:

1. Sakatu tekla, eta pantailan hau agertuko da: SAKATU ZK. Telefonoa esku libreko modura pasatuko da, eta kode bat markatuko du.
2. Sartu desbideratutako deiak jaso nahi dituzun zenbakia, eta sakatu # tekla berresteko.
3. Sakatu Es .ibreak tekla esekitzeko. Pantailan, AKTIBATUTA agertuko da.

Deien desbideratzea desaktibatzeko:

1. Sakatu tekla, eta pantailan: ESAKTIBATUTA agertuko da. Telefonoa esku libreko modura pasatuko da, eta kode bat markatuko du.
2. Sakatu Esku Libre tekla esekitzeko.



Deia zain.

Dei bat egiten ari zarela, beste dei bat jaso dezakezu. Une horretan, tonu batzuk entzungo dituzu elkarrizketaren gainera.

saka dezakezu bigarren deira aldatzeko. Pantailan ZAIN r-2 agertuko da.

Horrela, lehen deia atxikita geratuko da.

Elkarrizketa batetik bestera pasatzeko, sakatu tekla berriro.

Hiruko deia.

Funtzio honek linea banatako bi pertsonarekin elkarrizketa izateko aukera ematen dizu (zerbitzu hau telefono-konpainiarekin kontratatu behar duzu).

1. Hartu entzungailua, eta markatu lehen pertsonaren zenbakia.

2. Sakatu R tekla komunikazio hori atxikitzeko.

3. Markatu hitz egin nahi duzun bigarren pertsonaren zenbakia. Erantzuten duenean:

4. Sakatu tekla. Orduan, hirurok bata besteari entzun eta hitz egin diezaiokezue. Pantailan HIRUKOA r-3 agertuko da.

Hizketan ari zaren bitartean hiruko deia egitea

Elkarrizketa batean zehar bigarren dei bat jasotzen baduzu, dei horri erantzun ondoren (tekla sa iz), hirurak elkarrizketan sar zaitezke sakatuz.

Ahots-postontzia.

Postontzia aktibatzeko:

1. Mikrotelefonoa esekita dagoela, sakatu MENUA tekla.

2. Sakatu tekla, AHOTS-POSTONTZIA agertzen den arte. Sakatu OK .

3. Pantailan AKTIBATU POSTONTZIA agertuko da. Sakatu OK .

4. Pantaila esku libreko moduan jarriko da automatikoki, aktibatze-kodea markatzeko.

5. Sakatu Esku Libreak tekla itzeko.

Ahots-postontzia desaktibatzea:

1. Mikrotelefonoa esekita dagoela, sakatu MENUA tekla.

2. Sakatu tekla, AHOTS-POSTONTZIA agertzen den arte. Sakatu OK .

3. Pantailan AKTIBATU POSTONTZIA agertuko da. Sakatu DESAKT. POSTONT autatzeko.

4. Sakatu OK Pantaila esku libreko moduan jarriko da automatikoki, desaktibatze-kodea markatzeko.

5. Sakatu esku libreko funtzioaren tekla esekitzeko.



Ahots-postontzirako lasterbidea.

Sakatu tekla; ekipoa, automatikoki, esku libreko modura pasatuko da, eta sarbide-kodea markatuko du.

Entzun mezuak eta sakatu esku libreko funtzioaren te :sekitzeko.

Euskaltelen bezeroentzako zerbitzua.

Tekla honen bidez, bezeroarentzako arreta-zerbitzura sar zaitezke zuzenean.

1. Hartu entzungailua linea izateko.

2. Sakatu **euskaltel** la. Telefonoak automatikoki markatuko du zenbaki hori.

6. Zer egin zalantzaren bat izanez gero

Sarrien gertatzen diren arazoak.

ARAZOA	KONPONBIDEA
Entzungailua hartzean, ez da ezer Entzuten eta argi gorria pizten da.	Egiatzatu entzungailuaren kablearen konexioa.
Entzungailua hartzean ez da ezer entzuten eta argia ez da pizten	Egiatzatu gailuaren telefonia-linearen konexioa eta zure etxeko telefono-hartunearena.
Telefonoa esekita dago, baina argi gorria piztuta dago.	Sakatu Esku Libreak tekla. Tekla hori ustekabean sakatu da eta telefonoa Esku Libreak moduan gelditu da eseki gabe. Sakatu berriro tekla bera.
Pantailan ikur arraroak agertzen dira eta telefonoak ez du erantzuten.	Deskonektatu telefonoa lineatik zenbait segundoz.

Txirrina oso baxu entzuten da.	Egiatzatu hautatutako txirrin-maila
Ez da agertzen deitzen duen pertsonaren zenbakia.	Egiatzatu zure konpainiaren deia identifikatzeko zerbitzua kontratatua duzula. Baliteke zerbitzua kontratatua izatea, eta deitu duen pertsonak identifikazioa desaktibatu izana.
Esku Libreak moduan ez da ezer entzuten	Egiatzatu Esku Libreko moduan deiak hartzeko bolumena.
Batzuetan deitzen duen pertsonaren izena agertzen da eta beste batzuetan ez	Deitzen duenaren zenbakia agendan badago, pantailan haren izena eta zenbakia agertzen dira. Bestela, zenbakia bakarrik agertzen da

7. Zehaztapen teknikoak

Itzulera-galerak: > 14 dB.

Multimaiztasun-markaketaren kodeak: CCITT Z.23.

Emisio-denbora: > 65 ms.

Pausa-denbora: > 65 ms.

Irekiera tenporizatuaren iraupena: 100 ms.

Markaketako pausa-denbora: 3 s.

Agendako memoria-kopurua: 100.

Gehienezko digitu-kopurua memoriako: 24.

Dei-erregistroen kopurua: 20.

Mota honetako deien identifikazioa: FSK (RP-AS).